



Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailletza • Secretaria-Intervención
idazkaritza@astigarraga.net

TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN AKTA

Batzordea: Tokiko Gobernu Batzarra

Bilera-zenbakia: 2008ICGO0006

Eguna: 2008/05/23

Ordua: 12:30-13:45

Tokia: Alkatetza

Bertaratuak

- Bixente Arrizabalaga Bengoetxea EA
- Eloy Bazan Bazan EA
- Zorione Etxezarraga Ortuondo EAJ/PNV

Bertaratu ez direnak

- Carlos de la Peña Hornés EB-B

Idazkaria

- Xabin Olaizola Lasa

Aztergaiak

2008/05/05eko aktaren onarpena	1	Aprobación del acta de fecha 05/05/2008
2009ko herriko jaieguna	2	Festividad local 2009
U.E.U. 6 udal lursailari inbentarioan baja ematea (Ederki 2002 SL)	3	Baja en Inventario terreno municipal U.E.U. 6 (Ederki 2002 SL)
Bozera maileen Batzarra eratzea	4	Creación Junta de Portavoces
Galde-erreguak	5	Ruegos y preguntas

Esan-eginak eta erabakiak

1.- 2008/05/05eko aktaren onarpena

2008ko maiatzaren 5eko akta aho batez onartu da.

1.- Aprobación del acta de 05/05/2008.

Se ha aprobado, por unanimidad, el acta de 5 de mayo de 2008.



Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailletza • Secretaria-Intervención
idazkaritza@astigarraga.net

2.- 2009ko herriko jaieguna

Alkateak, 2009ko uztailaren 24a tokian tokiko jaieguna izateko proposamena aurkeztu du betiere uztailaren 25a, Santio eguna eta Astigarragako patroiz eguna, estatu mailan jai eguna izatekotan.

2.- Festividad local 2009

El Alcalde presenta la propuesta para declarar festivo local el día 24 de julio de 2009, siempre y cuando el día 25, día Santiago y patrón de Astigarraga, sea considerado festivo a nivel de Estado.

3.- U.E.U. 6 udal lursailari inbentarioan baja ematea (Ederki 2002 SL)

Ederki 2002 SL enpresari behin betirako onarturiko birzatatze proiektuaren bidez UEU-6an kokaturik dauden 462,027 m²ko udal lurren transmisioaren berri eman da. Horren ondorioz, eskualdaturiko lurren balioagatik jarritako bermea aurrera eramateko espedienteari hasiera eman zaio. Behin bermea kontabilizatuta lursailari baja emango zaio inbentarioan. Batzarra kideek esandakoa berretsi dute.

3.- Baja en Inventario terreno municipal U.E.U. 6 (Ederki 2002 SL)

Se da cuenta de la transmisión de los 462,027 m² de terreno municipal ubicado en la UEU 6 que a través del proyecto de reparcelación aprobado definitivamente se hizo a favor de Ederki 2002 SL. A consecuencia de ello, se ha iniciado expediente para ejecución de la fianza aportada por el valor del terreno de la transmisión y una vez contabilizada se procederá a la baja de inventario. Los miembros de la Comisión ratifican esta intervención.

4.- Bozeramaileen Batzarra eratzea

Alkateak adierazi du aurreko bileretan Bozeramaileen Batzarra sortzeko zirriborroa aurkeztu eta testuari alegazioak eta iradokizunak egiteko epea ireki zela. Testua aztertu da eta Bozeramaileen Batzarrak moziak eztabaidatu eta ebazteko eskumena edukiko duela adostu da. Aginpide hau testu originalean sartuko da.

Gaia eztabaidatu ondoren, EAren aldeko botoekin eta EAJ-PNV ren absentzioarekin Osoko Bilkurari luzatzea oniritzia eman dezan adostu da.

4.- Creación Junta de Portavoces

El alcalde manifiesta que en reuniones anteriores se presentó el borrador de creación de la Junta de Portavoces y se abrió un plazo para presentación de alegaciones y sugerencias a dicho texto. Se analiza el texto y se acuerda incorporar como competencia propia la relativa a que la Junta de Portavoces será competente para el debate y resolución de mociones, competencia esta que se incorpora al texto original.

Tras un debate con los votos a favor de EA y un voto de abstención de EAJ- PNV, se acuerda elevar al Pleno para su aprobación.



Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailletza • Secretaria-Intervención
idazkaritza@astigarraga.net

5.- Galdera-erreguak

5.1. Alkatetzak Kreditu-txartelaren kontura 2008ko apirilaren 30era bitarte egindako gastuen berri eman da.

5.2. Maiatzaren 22an Haur-eskolak Partzuergoaren arduradunekin izandako bilera aztertu da, eta eztabaidatu ondoren, honako hau erabaki da:

- gai hori presazkoa dela deklaratzeko eta onartzea. Erabakiei dagokienez, honako hauek hartu dira:

1. Haur-eskolak kudeatzeko eta hiru urtetik beherako haurrei hezkuntzaren eta laguntzaren aldetik arreta eskaintzeko Haur-eskolak partzuergoa eratzearen Eusko Jaurlaritzak eta Astigarragako Udalak sinatutako lankidetzak hitzarmenaren 2. eranskina onartzea.

2. Partzuergoan sartzeko aukera 2008-2009 ikasturtean izan dadin erabakitzea.

Bestalde, Zorione zinegotziak adierazi du Haur-eskolarekin harremanetan jarriko dela 2008-2009 ikasturterako Partzuergoan sartzeko aukera kudeatzeko.

Subrogazio-klausulen ondorioz egon litezkeen gertakizunak saihestearren, Idazkari kontu-hartzaileak honako aukera hau dagoela adierazi du: "Aldi baterako, eta kontuan hartuta Partzuergoak jakinarazi duela hiru lagunek ez dutela behar den titulazioa, eta nahitaezko titulazioa aurkezteko joan den urtean epea luzatu arren, titulaziorik aurkeztu ez dutenez gero, aldi baterako beste luzapen bat egiteko aukera eskaintzea (hau ezin izango da gehiago luzatu), betiere eraginpekoek idazki bidez aitortpen bat egin ondoren, eta Udal honetara bidaltzen badute. Idazki horretan adierazi beharko

5.- Ruegos y preguntas

5.1. Se da cuenta de los gastos de alcaldía imputados a la tarjeta de crédito y relativos al 2008 hasta el 30 de abril.

5.2. Se analiza la reunión mantenida con responsables del Partzuergo de Haur-eskolak el día 22 de mayo y tras un debate se acuerda:

- declarar la urgencia de este punto procediendo a su aprobación. En cuanto a los acuerdos, se adoptan los siguientes:

1. Proceder a la aprobación del anexo 2 al convenio de colaboración entre el Gobierno Vasco y el Ayuntamiento de Astigarraga para la constitución del consorcio Haur-eskolak para la gestión de las escuelas infantiles y la atención asistencial y educativa a menores de tres años.

2. Acordar que la incorporación al Partzuergo se realice en el curso 2008-2009.

Por otro lado la concejal Zorione señala que mantendrá contactos con la Haur-eskola a los efectos de gestionar la integración en el Partzuergo para el curso 2008-2009.

El Secretario-Interventor a los efectos de evitar las hipotéticas contingencias derivadas de la cláusula de subrogación apunta la posibilidad de que: "Transitoriamente, y habida cuenta que el Partzuergo anticipa que hay tres personas que no cuentan con la titulación necesaria y dado que a pesar de la prórroga que se otorgó el año pasado para acreditar la titulación obligatoria tampoco se ha acreditado, se ofrezca transitoriamente la posibilidad de ultimar una prórroga más que tendría carácter de improrrogable, siempre y cuando, previamente los afectados hagan una declaración por



Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención
idazkaritza@astigarraga.net

dute, esanbidez, uko egiten diotela 2005-2006 ikasterterako sinatutako kontratuan azaltzen den subrogazioari, baita ondorengo luzapenei ere, eta aldi batean egoki litzaziekeen subrogazioaren bat aplikatuzetik salbuetsita daudela".

Zorione zinegotziak esan du aztertuko duela bide hori.

5.3. Eloy Bazán zinegotziak adierazi du Orsa enpresa ez dela gauzatzen ari Obra Batzordea egiten ari den esleipenak. Hori dela-eta, bilera bat egingo dute Orsarekin egoera aztertzeko.

escrito, con entrada en este Ayuntamiento, en la que manifiesten que renuncian expresamente a la subrogación contenida en el contrato suscrito para el curso 2005-2006 y posteriores prórrogas, quedando excluidos voluntariamente de toda aplicación de subrogación que eventualmente les pudiera asistir.

La concejal Zorione manifiesta que explorará esa vía.

5.3. El concejal Eloy Bazán da cuenta de que la empresa Orsa no está ejecutando las adjudicaciones que está realizando la Comisión de Obras. A tal efecto, prepararán una reunión con Orsa para analizar la situación.

Bilera amaitutzat eman dugu eta, eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, agiri hau egiten dut.

Astigarraga, 2008ko maiatzaren 23an

